

1964. urtean, Ibarruriko Ajuria auzoko parrokian, azaroaren 1ean, bere parrokian predikatu zuen sermoian, Alberto Gabikagojeaskoak Muxikako Areatza auzo-eskolan egindako pintaketa eta txikizioak zirela-eta atxilotuek jasandako torturak salatu zituen. Ordena Publikoko Epaitegian epaitu eta sei hilabeteko kartzela zigorra eta hamar mila pezetako isuna jarri zioten. Bera izan zen, aurrerago zehaztuko dugunez, Zamorako kartzelako lehenengo maizterra.

Zehaztu behar da Alberto Gabikagojeaskoa baino lehenago epaitu zutela Donostian Joxe Ulazia gipuzkoar apaiza, nahiz eta ez zuten Zamoran espetxeratu.

Beste kontu bat parrokia batzuetan frankistek elizkizunetara sartzan zuten bandera espainola zen, baita «Espainiaren batasunaren alde» eroritakoen alde jarritako oroitarriak ere. Apaiz askok ikurrok kentzeko borroka egin zuten, eta horiek ere jazarri egin zituzten.

Horrela, elizkizunetan bandera espainola erabiltzearen kontrako salaketak ondorioak izan zituen lehenengo kasua, herrian zabal ezagutu zena bera, 1966an gertatu zen. Patxi Bilbaok, Gamizko parrokian, bandera espainola elizan sartzeari salatu zuen sermoian, zatiketa sortzen duten ikurrak elizan sobera daudela esanez. Horren ostean, Pablo Gurpide gotzainak, Bizkaiko gobernadore zibilak presionatuta, hilabetez predikua egitea debekatu zion.

Urte berean, «politikotzat» jo zituzten motibo eta ekintza pastoralengatik, isunak ezarri zizkieten apaiz batzuei, besteak beste, Ander Manterola, Jose Mari Madariaga, Pedro Berriategortua eta Lukax Dorronsorori. Hurrengo urtean, 1967an, Juan Mari Arregiri isuna ezarri zioten Ortuellan langileei egindako torturen eta atxilotuen kontra sermoia predikatzegatik. Urte bereko Maiatzaren Lehenean Lukax Dorronsoro eta Mikel Zuazabeitia atxilotu zituzten Ordiziako manifestazioan. Urte hartako otsailean izan zen, halaber, Bilbo-ko Gran Viatik gobernadore zibilaren Plaza Eliptikoko egoitzaraino laurogei bat apaiz bizkaitarrek, denak sotanaz jantzita —apaizen janzkera aginduzkoa garai haietan— egin

zuten manifestazioa, Etxebarriko Bandas lantegiko langile grebalarien alde.

Honetan, Jose Angel Ubietak dramatikotzat jotzen dituen 1968-1969 urteetara iristen gara. 1968ko Maiatzaren Leheneko manifestazioan, Bilbon, Periko Solabarria, Imanol Olabarria eta Juan Mari Arregi, orduan «apaiz langileak», atxilotu zituzten. Ekainaren 7an, Guardia Zibilarekin izandako konfrontazioan, ETAk Pardines guardia zibila hil zuen eta berehala Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta, ETako buruzagietako bat, hil zuen. Hildako ETAkidearen alde burutu ziren manifestazioen eta eman ziren mezen ondoren eta ondorioz, benetako isun parrastada gertatu zen.

Urte hartantxe habilitatu zen Zamorako Konkordatu kartzela. Palentziako Dueñasen, trapatarren monasterioan, Ordena Publikoko Epaitegiak jarritako zigorra betetzen zegoen Alberto Gabikagojeaskoa, abuztuaren lehen egunetan, eraman zuten Zamorara; berari egokitu zitzaion kartzela hura estreinatzea. Handik egun gutxira espetxeratu zituzten Felipe Izagirre eta Juan Mari Zulaika gipuzkoar fraide frantziskotarrak. Hilabete hartan bertan, baita ere, Xabier Amuriza, Txomin Artetxe, Iñaki Aurtenetxe, Jose Mari Madariaga, Imanol Oruemazaga eta Periko Solabarria bizkaitar apaizak, Lukax Dorronsoro eta Mikel Zuazabeitia gipuzkoar apaizak eta Juan Jose Onaindia Lazkaoko komentuko fraide beneditarra.

Estatuaren errepresio jasanezinaren eta eliz hierarkiaren isiltasunaren eta konplizitatearen aurrean, Nerbioi ezkerraldeko apaiz eta laiko talde batek eta eskualde euskaldunagoetako beste batek, beste apaizen jarrerarekin ados ez zeudelarik, Begoñan elkarrekin biltzen hasi eta euren artean harreman eta eztabaida zehatzagoak eta ekintzei begirakoak bideratzeari ekin zioten. Talde bakoitzak bera lanean ari zen eskualdeko errealitatearen eragina zeukan, noski. Ezkerraldekoek nabarmenago islatzen zuten gizartearen egoera orokorra eta langileen errealitatea; eskualde euskaldunagoetakoek, berriz, errealitate nazionalari, kulturalari eta linguisti-

koari ematen zioten garrantzi handiagoa. Nolanahi ere, talde biak konturatzen ziren eman beharreko erantzunak errealtatearen alde bioi kasu egin beharko ziela. Hots, Euskal Herriko langile eta gizarte-errealitateari, alde batetik, eta errealtate nazional eta lingustikoari, bestetik.

Kontzientzia horrexen eta orduko eztabaida mamitsuen emaitza izan zen, besteak beste, Gogor taldearen sorrera. Lematzat aukeratu zuten *Gogorkeriaren kontra Gogortasuna* ikurritzaren laburpena, hain justu.

Talde haren ekintzarik esanguratsuenak izan ziren: Bilbo-ko Gotzaitegiak Mazarredo kalean zituen bulegoetan, ekainean eta abuztuan, egindako itxialdiak; eta Derioko Seminarioan, 1968ko azaroaren 4tik hilabete bereko 28ra arte, 60 apaizek burututako itxialdia. Itxialdira prestatu eraman eta itxialdian zehar gehiago landu eta Vatikanon aurkezten —itxura batean, arrakasta gehiegirik gabe— ahalegindu ziren dokumentuan, «Eliza pobrea, librea, dinamikoa eta lekuan lekukoa» aldarrikatzen zuten. Pablo Gurrutxak *a divinis* suspendituta utzi zituen, hau da, debekatu egin zien beren abade eginkizunak betetzea, hala nola meza ematea.

Itxialdi bitartean hil zen Pablo Gurrutxa, azaroaren 18an, eta Jose Maria Zirarda izendatu zuten Bilboko elizbarrutiko administrari apostoliko. Berehala, itxialdian ziren apaizei bisita egin eta *a divinis* etenaldia barkatu zien.

1969. urtean zehar —dramatikoa, aipatu dugunez—, jazoe-
ra hauexek azpimarratu beharko lirateke:

- 1969ko urtarrilean salbuespen egoera dekretatu zuten Espainiako Estatu osoan. Testuinguru horretan, hainbat huelga egin ziren otsailean: AHVko 8.000 behargin atera ziren huelgara eta euren enpresa, Ansio, Sestao eta Barakaldon fabrikak zituenak, itxi egin zuen gobernadore zibilak. Horiekiko elkertasunez, Navaleko milaka behargin batu ziren huelgara. Huelga Gipuzkoara ere hedatu zen, non Orbe-
gozoko eta Michelineko langileak atera ziren huelgara. Jada 35.000 euskal langile baino gehiago ziren sindikatu bertikala donosten zuen lege sindikalaren aurka huelgan zeudenak.

Hainbat eta hainbat langile atxilotu zituzten, euren artean Periko Solabarria apaiz langilea.

Geroago, eskola-sektorea, 10.000 ikasle baino gehiagorekin, aterako zen huelgara Vietnamgo gerraren kontra, eta polizia batek larriki zaurituko zuen balaz ikasle bat. Aipatze-koak, halaber, birritan burututako Donostiako Artzain Ona katedralaren okupazioa eta apirilaren 6ko Aberri Egunekeo manifestazioen kontrako errepresio eta atxiloketak. EGIko ekintzaile bi hil ziren bonba bat manipulatzeko ari zirela.

- Bilboko Artekale eta Santanderreko Mogrovejo herriko atxiloketak. Inolako zalantzarik gabe, apirileko lehen hamabostaldian gertaturiko jazoerak izan ziren Euskal Herrian aspaldiko polizia operaziorik handiena eragin zutenak. Apirilaren 9an, ETAk Bilboko Artekale kalean zuen etxebizitza ezkutura sartzera zihoazela, tiroka hartu zituzten etxebizitzan zain zeuden poliziek. Josu Abrisketa, Bittor Arana eta Mario Onaindia ETako liberatuak atxilotu egin zituzten. Mikel Etxeberria zauritu egin zuten, baina ihes egin ahal izan zuen. Taxia hartu zuen iheserako. Orozkora eramanez zala eskatu zion taxilariari eta eskatzen zuena ordainduko ziola bidaia horregatik. Lan hori egiteko ez zegoela prest erantzun zion taxilariak. Arrigorriaga inguruan, polizia atzetik zuela, eztabaida sortu zen Fermin Monasterio taxi gidariaren eta militante abertzale larriki zaurituaren artean. Bien artean izandako indarkaren ondorioz, taxi gidaria hilik gertatu zen. Mikelek taxian burutu zuen ihesaldia.

Bi egun geroago, Mogrovejon (Europako mendiak) atxilotu zituzten ETako gainetiko buruzagitzako kideak: Jone Dorronsoro, Enrike Gesalaga, Teo Uriarte eta Jon Etxabe gipuzkoar apaiza.

Operazio horrek eta berorren geroko ondorioek polizia-
ren sarekadarik handiena ekarri zuten Bizkaian 1969ko apirilean eta maiatzean. Ehunka lagun atxilotu zituzten, eta lauhunek baino gehiagok, inoiz baino gehiago batera, ihes egin beharra izan zuten. Guztiei aplikatu zitzaizkien «Ley de bandidaje y terrorismo» zeritzon lege sonatu eta gogorra,

zeinak, besteak beste, Auzitegi Militarren aurrean epaiketa *sumarisimoak* egitea ahalbidetzen zuen. Atxilotuen artean zeuden jada apirilaren 23an Joseba Atxa, Pedro Maria Ojanguren, Martin Orbe eta Jose Mari Ortuzar bizkaitar apaizak. Jose Angel Ubieta ere, orduan bikarioa zena Jose Maria Zirarda gotzainarekin, berrogeita zortzi ordu inguru atxiloturik egon zen, inoiz prozesatu ez bazuten ere. Data haietan atxilotu zituzten Kepa Arrate, Patxi Auzmendi eta Imanol Gisasola josulagunak ere.

Atxilotuak izan ondoren, Jon Etxabe, Martin Orbe eta josulagunetako bi torturatu ere egin zituzten.

Egun horietan beste zenbait apaiz zigortu zituzten. Sonatuenak aipatuz, Periko Solabarria atxilotu zuten, Periko Berrioategortuari urtebeteko espetxealdia ezarri zioten eta Imanol Oruemazagari sei hilabetekoa.

Kartzeleratu egin zituzten Jon Etxabe, Joseba Atxa, Pedro Mari Ojanguren, Martin Orbe, Jose Mari Ortuzar bizkaitar apaizak, eta Kepa Arrate, Patxi Auzmendi eta Imanol Gisasola josulagunak.

Ihes egin behar izan zuten Tomas Saizar eta Paulo Iztueta sakramentinoek, Juan Mari Arregi, Amadeo Rementeria, Tomas Gaztelurrutia, Luzio Aurrekoetxea, Imanol Olabarria, Fermin Gongeta, Iñaki Llaguno eta Jesus Sanchez Sierra bizkaitar apaizek eta Julio Araluze josulagunak. Zerbait lehenago erbesteratu ziren, arretaz, Josu Barandika eta Luis Maria Laibarra bizkaitar apaizak.

Egunero agertzen ziren argitaraturik epaitegi militarren hainbat «errekisitoria».

- Bilboko Gotzaitegiko gose greba. Maiatzaren 30ean hasi zuten gose greba, Gotzaitegiko sotoan, Xabier Amuriza, Alberto Gabikagojeaskoa, Julen Kalzada, Josu Naberan eta Nikola Telleria bizkaitar apaizek. Hiru egun t'erdira atxilotu zituzten. *Epaiketa militar sumarisimoz* epaitu zituzten Burgosen, *errebelamendu militar* akusaziopean. Hamabi eta hamarna urteko kartzela zigorra ezarri eta berehala Zamoran espetxeratu zituzten.